

Zangoza / 2021

KULTUR AGENDA

abuztua



Nafarroako
Gobernua



NAFARROAKO
ANTZOKI SAREA

Vallesantoro Jauregia/Kultura-Etxea

Kultura-zerbitzuaren udako arreta ordutegia: Asteartetik ostiralera, 09:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara.

Erakusketa Aretoetako Ordutegia: Asteartetik larunbatera, 11:30etik 14:00etara. eta 19:00etatik 21:00etara.

Helbidea: Alfontso Borrokalaria Karrika 20. Tfnoa: 948 870 251.

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Lorategiko kontzertuak:

Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Lorategian eginen diren kontzertuetarako sarrera doakoa izanen da. Kontzertura sartzeko Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko lorategiko atetik. Atea kontzertua hasi baino 30 minuto lehenago zabalduko da. Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldeztu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 3tik aurrera** Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es.

Antzeturiko bisitak Zangozan: Doako bisitak: gonbidapenak aldeztu behar dira. Gehienez ere 4na pertsonako eta bisita bakoitzeko. Gonbidapenak erreserbatu ahal izanen dira 649 303 339 telefonoan, 11: 30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21: 00etara, asteartetik larunbatera, edo turismoycomerciodesanguesa@gmail.com posta elektronikoen bidez. Bisitariak langileen eta bisita gidatuko duen konpainiaren jarraibideak bete behar dituzte uneoro.

Kultura-agenda posta elektronikotik jaso nahi baduzu, helbide honetara eska dezakezu: infocultura@sanguesa.es. Facebooken eta www.sanguesacultura.es web-orrian gure kultura-agendari segi diezaiokezu eta datuak babesteko legea honakoetan kontsultatu: www.sanguesa.es

 www.facebook.com/culturasanguesa

 www.instagram.com/culturasanguesa

Zangozako Udalak ez du bere gain ardurarik hartzen, aldatzen diren edo betetzen ez diren ekitaldiengatik, baldin eta hauek egitarau honetan ez badira aditzera eman.



Enrique Ruizen argazki baten xehetasuna.

1 Ig	Antzeturiko bisita Erakusketa "Egunerako bizitza erdi aroko Zangozan" (irailaren 19a bitarte) "Poema". Artea kalean. Xacobeo 2021 (urriaren 3a bitarte)	16. Orr. 4. Orr. 6. Orr.	
2	Al		
3	As		
4	Az	Erakusketa Xacobeo 2021 "Santiagora bidez. Gogoetazko begirada" (abuztuaren 19a bitarte)	5. Orr.
5	Og		
6	Os	Lorategirako musika. Fetén Fetén + Jou González	7. Orr.
7	La		
8 Ig	Antzeturiko bisita	16. Orr.	
9	Al		
10	As		
11	Az	Lorategirako musika. Ibil Bedi	8. Orr.
12	Og		
13	Os	Lorategirako musika. Bruno, Lorena y amigos	9. Orr.
14	La		
15 Ig	Antzeturiko bisita	16. Orr.	
16	Al		
17	As		
18	Az	Antzerkia. "Distans"	12. Orr.
19	Og		
20	Os	Kultur Programa. Los Flamingos	15. Orr.
21	La		
22 Ig	Antzeturiko bisita	16. Orr.	
23	Al		
24	As		
25	Az	Antzerkia. "Pantxika Alter Ego"	13. Orr.
26	Og	Erakusketa "En torno a la restauración de la iglesia de Santiago (50 años)" (irailaren 19a bitarte)	4. Orr.
27	Os	Lorategirako musika. Jorge Sánchez	10. Orr.
28	La		
29 Ig			
30	Lu		
31	As		

Erakusketak



“EN TORNO A LA RESTAURACIÓN DE LA IGLESIA DE SANTIAGO. 50 AÑOS”

ZANGOZAKO ALBRETEKO
ENRIQUE II. KULTURA-TALDEAREN
ANTZINAKO ARGAZKIEN ERAKUSKETA

ABUZTUAREN 26TIK IRAILAREN 19RA

Martxoan 50 urte bete ziren Santiago eliza auzolanean zaharberitzeko lanak amaitu zirenetik. Ikusgai ditugun argazkiekin, hiru urtetan zehar egindako lanetan era batera edo bestera esku hartu zuten guztiak aintzatetsi nahi ditugu.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia / Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.



“EGUNEROKO BIZITZA ERDI AROKO ZANGOZAN”

IRAILAREN 19A BITARTE

“Eguneroko bizitza Erdi Aroko Zangozan” izenburupean, erakustaldiak Hiribilduaren historiaren ikuspegi hurbila eskaintzen du, Alfontso Borrokalaria XII. mendean sortu zuenetik eta ondorengo garapena: bizimoduak elikaduraren bidez, moneta edo janzkera. Baita Zangozako ezaugarriarik nabarmenak ere, esate baterako, haren kokapena ibilbide historikoen barruan: Donejakue Bidea eta Almadiazainen Ibilbidea.

Hainbat argibide-taulek osatzen dute erakusketa eta XII mendetik XV mendera Zangozan bizi izan ziren lagunen eguneroko bizitza azaltzen dute. Udan zehar bisita egiten digutenei bereziki zuzendua, gure hiriaren iragana nola eraiki den zerbait gehiago jakin dezaten.

Lekua: Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko bigarren solairuko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Erakusketa Aretoko bisita-ordutegia:

Astearretik larunbatera, 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara. Igande eta jaiegunetan 12:00etatik 14:00etara


Erakusketak. Xacobeo 2021



Nuria Castellanos "Camina salud"



Raúl Gárate "A camino largo, paso corto"



"HACIENDO EL CAMINO"

ZANGOZAKO ARGAZKI
ELKARTEAREN ERAKUSKETA

ABUZTUAREN 1A BITARTE

Donejakue bideak Zangozan utzitako arrastoa nabarmena da. Xacobeo urtearen ospakizuna dela eta, Kultura-etxetik Zangozako Argazkilari Elkartearen parte-hartzea eskatu genuen, Done Jakue bidearen aztarnari bere begirada pertsonala erakustez gain, Aragoiko bidea azpimarratzen lagun diezagun eta Europako kultura-ibilbide garrantzitsu honetan "inoiz hutsik egin ez zuenaren" protagonismoa nabarmen zedin.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/ Kultura-etxeko Erakusketa Aretoa.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

"SANTIAGORA BIDEZ. GOGOETAZKO BEGIRADA"

ABUZTUAREN 4TIK 19RA

Fermin Miranda Garcia Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Erdi Aroko Historia irakasle titularrak komisiariatu du erakusketa hau. Nafarroako Errege-artxiboak eta Artxibo Nagusiak antolatu dute. Done Jakueren inguruko hainbat alderdi azaltzen dituzten zortzi panelek osatzen dute erakusketa. Erakusketa-ibilbideak hainbat gai jorratzen ditu, hala nola bideak, zubiak, hiriak, artea, laguntza, penitentzia, debozioak eta hilobia.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.

Artea kalean. Xacobeo 2021



"Ansia"

Argazkia: Miguel Goñi Aguinaga



"Desconcierto"

Argazkia: Miguel Goñi Aguinaga



"Deseo"

Argazkia: Miguel Goñi Aguinaga

"POEMA". Artea kalean

MIKEL BELASCOAIN

URRIAREN 3A BITARTE

"*Poema*" Mikel Belascoain artista nafarraren sorkuntza garaikideko proiektua da, pintura, poesia, ingeniariaritz, eskultura eta hiri-arkitektura batzen dituena.

Lanak olerki bisual bezala ulertzen dira, olioiz egindako margolanak eta lan bakoitzari lotutako olerkiak barne. Pieza bakoitza ingurunekeo naturarekin, paisaiarekin eta arkitekturarekin integratzen da, kokapen bateko biztanleekin orekatuta.

Bakoitzak intentsitate handiko emozioa irudikatzen du. "*Nada salvo las flores*", "*Conmoción*", "*Deseo*", "*Desconcierto*" eta "*Ansia*" bizi dugun unearen katalizatzaile adierazgarri gisa aurkezten dira. Artistak ikuslearen emozio poetikoenekin bat egin nahi du, obrak eta hiriarren inguru bat egiteko ibilaldi artistikoa proposatuz. Mikel Belascoainek Santa Maria elizaren eta Aragoi ibaiaren pasealekuaren inguruak aukeratu ditu. Testuinguru horretan, arte-ondarea eta ondare naturala uztartzen dira, eta garaikidea eta Erdi Arokoa elkarrekin mintzatzen dira, oso giro poetikoa sortuz.

Lekua: Santa Maria Elizaren eta Ibaiko pasealekuaren inguruak.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

BISITA GIDATUA MIKEL BELASCOAINEKIN

ABUZTUAK 29, IGANDEA

Topagunea: Santa Maria Eliza. Edukiera mugatua.

Ordua: 12:00.

Gutxi gorabeherako iraupena: 60 minutu.

Doako bisita gidatua edukiera bete arte. Gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere 2na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako. Gonbidapenak eskuragai **abuztuaren 3tik** Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, 948870251 telefonora deituz edo emailez infocultura@sanguesa.es helbidean.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

Lorategirako musika



FETÉN FETÉN + JOU GONZÁLEZ

ABUZTUAK 6, OSTIRALA

Musikariak: Jou González, klarineta, saxoa; Diego Galaz: biolina, mandolina, strohviol, koilarak, zartagina, hezurtegia; Jorge Arribas; akordeoia, putre hegaleko txirula, "kaval" bilgailua, bansuri erratza, kanpin aulkia-txirula, maskorrak eta kaskainetak.

Fetén Fetén taldea, bere laugarren lana argitaratu eta gonbidatu gisa parte hartu ostean, "Fito & Fitipaldis" taldearen eta Jou González "Docto Deseo" taldeko saxofoi jotzaile eta klarinete-jotzailearen biran, azken honekin batera musika-proposamen ikaragarri, fresko eta indartsu hau dakarkigu, joan den udan Münster-ko "Summerwinds musikaldian" arrakasta handia bildu zuena.

Elkarrekin musika ikuskizun bat aurkezten digute, non saxoa, klarineta, akordeoia eta biolina talde original honek proposatzen dizkigun doinuetako protagonista bihurtzen diren, beste instrumentu ezohikoekin batera, hala nola strohviola, zerrotea, putre hegaleko txirula, kanpin aulkia-txirula edo "kaval" bilgailua eta "bansuri" erratza. Jorgek, Diegok eta Jouk munduaren inguruko bidaia zirrargarri eta dibertigarri batera gonbidatzen dute publikoa, ustekabez beteriko kontzertu batekin.

Ikasleak: Gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Iraupena: 75 minutu gutxi gorabehera

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Lorategia.

Sarrera: Doan edukiera bete arte.

Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldeztatik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 3tik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.

Lorategirako musika



"BELTXARGA BELTZA"

IBIL BEDI

ABUZTUAK 11, ASTEAZKENA

Musikariak: Amets Aranguren Arrieta: saxoa, ahotsa eta teklatura; Eder Escalera Llorente: bateria; Javier Larrañeta Iribarren: baxua; Ibai Osinaga Gogorcena: gitarra y ahotsa; Areta Senosiain Elorza: biolina eta teklatura.

Ibil bedi Irunberri, Erriberri, Zangoza eta Iruñeko bost gaztek osatzen dute. 2019ko ekainean karrikaratu zuten beren lehen diskoa, *Berandu baina garaiz* izenekoa. Urte horren hondarrean, *Bide Zuzena-Teilaturantz* abesti bikoitza atera zuten, taldearen bideoklip bakarrarekin batera. Aurten, taldearen bigarren lan luzea argitaratu da: *Beltxarga beltza*, konfinamenduan konposatutako hamaika abesti biltzen dituen.

Maitasunaz, zalantzez, ezustekoez, galerez eta bizipenez hitz egiten dute euren abestiek. Haien musika, oro har, poparen ingurukoa da, baina batzuetan beste eragin batzuk senti daitezke.

Ikasleak: Gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Iraupena: 90 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeke Lorategia.

Sarrera: Doan edukiera bete arte.

Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 3tik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernu.

Lorategirako musika



BRUNO, LORENA Y AMIGOS

ABUZTUAK 13, OSTIRALA

Musikariak: Lorena Jiménez, ahotsa; Bruno Jiménez, ahotsa eta gitarra; Popo Gabarre, perkusioa; Félix Estévez, teklatuak.

"Bruno, Lorena y amigos" kontzertuan pop, saltsa, bachata edo "tumbao" musikarekin fusio flamenko bizienera hurbilduko dira ikusleak. Oraingo honetan, Zangozako Jiménez anai-arreba ezagunak agertokian batuko dira Espainiako flamenko panoramako bi pertsonaia garrantzitsurekin, Popo Gabarre eta Félix Estévez, inor axolagabe utziko ez duen soinu eta erritmo eztanda bat lortuz.

Pedro Gabarre, Popo bezala ezagunagoa, musikaria, perkusionista, dantzaria eta diziplina anitzeko artista da.

Mundu flamenkoak eman duen familia flamenko handienetako batekoa da, Carbonell familiakoa. Ama dantzariaren eta aita kantariaren semea. Enrique Morenteren iloba eta Kiki Morenteren eta Estrella Morenteren ohiko laguntzailea haien biretan.

Félix Estévez, teklatu jotzaile, perkusionista eta moldatzaile handia flamenko, flamenko fusio, pop, musika garaikide, jazz, latin jazz eta rock fusio formazioetan, besteak beste, Tomatito, Jorge Pardo, Alba Molina, Kiki Morente, José El Francés, Antonio Carmona, Potito edo Montse Cortés edo Joaquín Cortés bezalako artistekin jotzera eraman duena.

Ikasleak: Gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Iraupena: 90 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Lorategia.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 3tik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

Lorategirako musika



“SILVIO EN MÍ...Y EN TI”

JORGE SÁNCHEZ

ABUZTUAK 27, OSTIRALA

Musikariak: Jorge Sánchez, gitarra eta ahotsa; Eva Niño, txeloa.

2021. urte honetarako, Jorge Sanchez trobadore kubatarrak Silvio Rodríguez Kubatar Troba Berria mugimenduaren sortzailearen obretan zeharko ibilbide txiki bat proposatzen digu, “*Silvio en mí... y en ti*” izenburupean. 2017an Pablo Milanesen lanetatik egin zuen ibilbidearen antzekoa, oraingoan bere ahotsak eta gitarrak babestuta. Funtsean, kubatar troba hutsa. Proiektu honek Silvioren Bulegoaren eta Silvio Rodríguez-en beraren onespena du. Jorge Sanchez-en hitzetan, “Kubatar Trobaren bi zutabe hauen iturritik edan duen trobadore naizen aldetik, uste dut esker oneko eta segimenduko zorra dudala beren lanekin”.

Ikasleak: Gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Iraupena: 80 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeke Lorategia.

Sarrera: Doan edukiera bete arte.

Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldeztatik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 3tik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Lorategirako musika



“OROITZAPENAK”

HOGEI BERRIRO

IRAILAK 3, OSTIRALA

Musikariak: Txuma Flamarique, gitarra; Maite Txurruka, ahotsa; Ion Dorregari; Jon Uribeetxeberria, bateria.

Hogeï Berrirok kalitate musikalez eta hitzak dituzten doinu ederrez beteriko oroitzapenetara eramanen gaitu, gure ondare musikalaren parte bihurtu direnak. Enemigos Íntimos, Malú, Melendi, Nena Daconte, Los Condes edo No more Blues bezalako taldeetan izandako eskarmentuak laguntzen die musikari gisa.

Txuma Flamarique gitarra-jotzaile nafarraren proiektu berri honekin, artista euskaldun handien errepertorioaz gozatzeko aukera izanen dugu, Benito Lertxundi, Mikel Laboa, Itoiz, Hertzainak, Ruper Ordorika eta Xabier Leteren klasikoak berrikusiz, besteak beste.

Ikasleak: Gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Iraupena: 75 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeke Lorategia.

Sarrera: Doan edukiera bete arte.

Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldeztatik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi

bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 3tik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernuak.

Antzerkia



"DISTANS". Antzerki zirkua

VOL'E TEMPS

ABUZTUAK 18, ASTEAZKENA

Interpretatzaileak: Sara Ortiz, Albert Moncunill.

Espainia eta Europa guztiko agertoki batzuk zapaldu eta, besteak beste, FETEN Saria (Haurrendako Arte Eszenikoen Europako Azoka), zirku ikuskizun onenari Lorca Saria (2019) eta zuzendari onenari PACA saria jaso ondoren, Vol'e Temps konpainia Zangozara iritsiko da.

"Distans" antzezlanak adiskidetasunaz hitz egiten du, urteak igaro arren gure bihotzetan bizirik dirauten oroitzapenez. Gizakiaren hauskortasunaz, hausturaz, bakardadeaz eta besteekiko harremanak birsortu eta berreraikitzeke gai den maitasunaz mintzatzen da. Emozioetan barnako bidaia bat, ikus eta soinu-espazio batean, zirku akrobatikoko eta keinuzko antzerkiko eszenak bilduko dituena, familia osoarendako ikuskizun organiko, sentikor eta dibertigarria osatzen dutenak.

Iraupena: 55 minutu gutxi gorabehera.

Ordua: 19:30.

Sendi eta ikusle guztiendako. Haurrek heldu batekin egon beharko dute beti eta esleitutako aulkian eserita.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 10etik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Lekua: Luis Gil Ikastetxeko Jolastokia.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Antzerkia



“PANTXIKA ALTER EGO”

Clow antzerkia

ZIRIKA ZIRKUS

ABUZTUAK 25, ASTEAZKENA

Antzezlea: Ainhoa Juaniz.

Pantxika Lamur berrogeitapiko urte luze dituen emakumea da, menopausia hortxe, berak esaten duen bezala. Modernoa eta borrokalaria. Bere erronken artean, pertsonen arteko berdintasuna, feminismoa. Neskazaharra izateaz harro dago. Bitxisuala, pertsonekin maitemintzen da, ez generoarekin eta lagunak laguna. Bere alter egoarekin (maniki bat) eta ezinbestekoa den publikoarekin batera inprobisatuko du, inoiz errepikatu ezin izango den ikuskizuna. Umorez eta maitasunez josita!! Gozoa, gazia, mina eta pikantea.

Iraupena: 60 minutu gutxi gorabehera.

Ordua: 19:30.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Sarrera: Doan edukiera bete arte.

Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldeztu aurretik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 10etik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Antolatzailea: Zangozako Udalaren Gizarte Gaietako Batzordea.

Laguntzailea: INAI (Nafarroako Berdintasunerako Institutua), Nafarroako Gobernua.

Antzerkia



“YEE HAW”. Antzerki zirkua

LA BANDA DE OTRO

IRAILAK 1, ASTEAZKENA

Antzezleak: Rafael Díaz Ramirez, Daniel Foncubierta Campano eta José Alberto Foncubierta Campano.

Country, ragtime eta bluegrass-en inspiratutako unibertso musikal batean murgildurik, La Banda del Otro beraiek bezain berezia den (des) kontzertua eskaintzen digu. Zirku ikuskizun horretan, ezinezkoa da musikariak malabaristetatik edo pailazoetatik bereiztea. Bidelapurrak balira bezala, ia beti ibiltzen dira lapurretaren bat bilatzen, ia beti haietakoren batek jasotzen duena. Mihi gaiztoek diotenez, beren amarru guztiak erabiliko dituzte jendeari algarak lapurtzeko eta Bandaren konplize bihurtzeko.

Iraupena: 55 minutu gutxi gorabehera.

Ordua: 19:30.

Sendi eta ikusle guztiendako. Haurrek heldu batekin egon beharko dute beti eta esleitutako aukian eserita.

Sarrera: Doan edukiera bete arte. Luis Gil Ikastetxeko Jolastokian sartu ahal izateko, gonbidapenak alde aurretik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 10etik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Lekua: Luis Gil Ikastetxeko Jolastokia.

Laguntzailea: Nafarroako Gobernua.

Kultur Programa



LOS FLAMINGOS

ABUZTUA 20, OSTIRALA

Musikariak: Néstor Gayarre, ahotsa eta gitarra; Cristian Cornago, baxua eta koruak; Diego Pina, gitarra; Diego Caro, sintetizadoreak y Gaizka Sola, bateria eta koruak.

Los Flamings Nafarroako Erriberako musikarien nahasketa eklektikoa dira. Pop-Rock (indie) proiektua osatzeko elkartu ziren, inor axolagabe uzten ez duena.

2015ean, taldea oso soinu bereizgarri batekin plazaratu zen eta, horri esker, hasiera-hasieratik tokiko jaialdietan azaldu ziren.

2 Ep 's diskoaren ondotik, gaur egun, Eñaut Gaztañaga (Grises – Ezpalak) ekoizturiko iraupen luzeko album bat dute. 2020ko abuztuan Eñauten estudio berrian grabatu zutena, eta dagoeneko hainbat single aurreratu dizkigute, Radio 3n entzun ahal izan direnak eta 2021ean ikusmin handia sortzen ari direnak. Nafarroako talde interesgarri honetaz gozatzeko aukera paregabea.

Ikusleak: Gazteak eta helduak.

Ordua: 20:30.

Iraupena: 60 minutu gutxi gorabehera.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxeko Lorategia.

Sarrera: Doan edukiera bete arte.

Lorategira sartu ahal izateko, gonbidapenak aldez aurretik hartu behar dira. Gehienez ere 4na sarrera hartu ahal izanen dira pertsonako eta ekitaldi bakoitzeko. Sarrerak eskuragai **abuztuaren 3tik** aurrera Kultura-etxean, asteartetik ostiralera, 12:00etatik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, www.sanguesacultura.es eta www.sanguesa.es web-orrietan.

Antolatzailea: Nafarroako Gobernuia.

Antzeturiko bisitak



“ZANGOZA ANTZERKIAREN BIDEZ”

PRODUCCIONES TDIFERENCIA

IGANDEAN, ABUZTUAK 1, 8, 15 ETA 22

Badatoz ANTZEZTURIKO BISITAK Zangozaren ondarea beste era batean ezagutu nahi dutenendako. Esperientzia desberdin bat. Ez galdu!

Antzerkilariak: Adriana Olmedo, Nerea Bonito, Txetxu Collado.

Topalekua: Santa María la Real Eliza.

Doako bisitak: gonbidapenak aldeztu aurretik hartu beharko dira. Gehienez ere 4na pertsonako eta bisita bakoitzeko. Gonbidapenak erreserbatu ahal izanen dira 649 303 339 telefonoan, asteartetik larunbatera 11:30etik 14:00etara eta 19:00etatik 21:00etara, edo turismoycomerciodesanguesa@gmail.com posta elektronikokoaren bidez. Bisitariak langileen eta bisita gidatuko duen konpainiaren jarraibideak bete beharko dituzte uneoro.

Ibilbidea: Santa María Elizaren Aurrealdea, Aragoi Ibaia, Vianako Printzearen Gaztelu-jauregiaren Barnealdea, Karrika Nagusia, Vallesantoro Jauregia eta Karmengo Komentuaren Klaustroa.

Ordua: 12:00.

Iraupena: 80 minutu gutxi gorabehera.

Argibideak: Vallesantoro Jauregia-Kultura-etxea.

Laguntzaileak: Nafarroako Gobernua eta Diario de Navarra.

Bidea, ondarea eta zientzia



HITZALDIA

“SANTA MARÍA DE SANGÜESA DE MIL COLORES”

IRAILAK 2, OSTEGUNA

Santa Mariako portadaren jatorrizko polikromia eta Erdi Aroan pigmentuak sortzeko prozesuak ezagutzeko saio teorikoa. Jarraian, pigmentuak sortzeko materialen eta tekniken erabileraren erakustaldi praktikoa egingen da.

Hizlaria: Alicia Ancho Villanueva.

Ordua: 19:30.

Lekua: Zangozako Vallesantoro Jauregia/Kultura-etxea. Argibideak eta izen-emateak:

<https://navarracaminopatrimoniocyencia.es/>

Antolatzailea: Nafarroako Gobernua.